

egunekoa

Jaione Apalategi

(Pedagogian doktorea eta NUPeko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko dekanoa)

Lodosa-Sartaguda: Nafarroa Oinez 20001

Gaur, urriak 21, Jorge Oteitzak 93 urte betetzen ditu. Urte askotarako eta eskerrik asko Jorge!, zure lan oparoa Nafarroaren bidez euskaldunen eta munduaren eskuetan utzi duzulako. Hezkuntza eta heziketaren alorrean lanean ari garen guztiok, zuri Jorge, bederen, bi motatako esker bereziak eman beharrean gaude:

1. Orokorrean, hezkuntza fenomenoari loturiko ikaskuntza prozesuari buruz irakaslearen heziketa-dimentsioan ikerketa eta aportazio aurrerakoiak egin eta eskaini dizkiguzulako

2. Zehazki, ikastolaren egitasmoan sinestu eta bere sorreran parte hartu zenuelako. Euskal gizartearen kulturak bizi zuen minbiziari aurre egiteko tresna bat zela aidean oharatu zinen, eta zure jakinduria eta lana bertan jarri zenituen ere.

Oso harro sentitzeko arrazoirik baduzu zuk gaur, Ikastola hasiera haiei esker, «ohizko» ikastetxegintza —publiko zein pribatuetatik— ere, asko, hazi eta hedatzen ari delako. Oraingo Nafarroako gizarte-erakunde ofizialetatik, zuri maiz gertatu ohi zitzaizun bezala, aurka agertzen dira euskararen aldeko edozein gizarte-egitasmotan. Baina gizartea, bizi-bizirik dirau, eta Nafarroako Erribera ordezkatzan duen gizateri atal batek zuk beste askorekin batera hasi zenuen egitasmoan sinestu eta indartzen jarraitzen du, euren lekukoa egun beteko Nafarroa Oinez-ek eskainiko digularik.

Ekimen honetarako asmatutako abes-
tiak hauxe dio: *Nafarroa Oinez, Nafarroa Oinez, Nafarroa Oinez / Lodosa, Sartaguda biak elkar lanean / Piper gorri-gorriak, melokotoi lodiak / Herriek sortu dute zerbait harri-garria / euskararen enbor zaharretik kimu bi-*

zi-bizi! / Herria da gorputza, Hizkuntza bihotza / taupa-taupa aurrera badoa ikastola / zikoinak zeruan zabaldu du hegоя / euskararen amatxo zu zaitugu Nafarroa.

Hezkuntza herri-gorputzaren elikagai orekagarria da, ez da bakarrik irakaskuntzari lotu beharreko zerbait, baizik eta gizarte osoari dagokion errealitatea da. Eta are gehiago, ezin da gizartetik zein ikastetxetik gizarte-eraldaketa edo berrikuntzarik bultzatu, hezkuntzaz mintzatu gabe. Ez dago gizarterik aurrera egingo duenik, bere giza eta gizarte errealitatea oso-osorik berea egiten ez duen bitartean.

Hezkuntza egitasmo bat defendatzeko giza egitasmo bat behar da, bere jomuga eta aurreusteak ezagutuz. Lodosa-Sartagudako ikastola berriaren izenean ari diren guztiek jakin badakite bertako ikasleen etorkizun kulturala ziurtatzen ari direla, benetako giza-ondasuna eskuratzen. Bistan dena, heziketaren baldintza teknologikoa garatzeko laguntza behar dute, eta gaur bertaratuko diren zein joango ez diren asko eta asko bi ahaleginetan parte hartzeko prest daude. Baina non dago edozein ikastetxetako hezkuntza-egitas-mok behar duen ekonomiaren objektibitate egiturelaren laguntza?

Kantuak dio Hizkuntza herriaren bihotza dela, zera adierazten digularik: Lodosa-Sartagudako ikastolaren hezkuntza egitasmoa euskaraz mintzatzen da, bertako giza-egitasmotik irudizkatutako mundua eraikitzen jarraitu nahi dutelako. Hizkuntzek askatasuna, egia eta edertasuna lortzeko balio dute. Hitza, pertsonala eta soziala da aldi berean, gizarte baten gogo-eta materializatzen duen hotsa.

Hizkuntza bat ukatu edo debekatzea, giza-izatearen senari uko egitea da. Eta nos-

ki «eskubideen» garai hauetan gizabanako zein giza-taldeen sentimendua eta arrazoia elkartzen diren orekazko garapenaren aurka joatea da. Hizkuntza baten goibera, ez da berezko hitzunagatik abiatzen, baizik eta bere ingurune sozialetik susper-tu den egoera bortitzaren eraginagatik.

Erriberako ikastola berri baten deiadarrak, hasierako ikastolen asmo nagusi berberetara eramaten gaitu oraindik ere: bertako kultura mintzabide harturik, euskaraz bizi, iraun, eguneratu zein iragana, oraina eta etorkizuna irudikatzeko gai izango diren belaunaldi berriei, giza eta hezkuntza egitasmo baten inguruan, nortasun juridikoa izango duen eraikina lortzekoa.

Jakin badakigu ere, ez dagoela lo euskal irakaskuntzaren mugimendu ugaria bezain aberatsa, Nafarroa osoan eta Erriberan bereziki. Giza-talde desberdinetatik, ikastetxegintzaren euskaratzean lanean ari garen guztiontzako, Lodosa-Sartagudako Ikastolek antolatu duten Nafarroa Oinez 2001 sari bikaina dugu.

Eta, bereziki Nafarroako hezkuntza politikaren boterea dutenak areagotzen saiatzen diren eztabaida antzutik urrun, berri-
ro ere, hezkuntzaren inguruan lanean ari garen guztiontzako aurten Erriberan egingo den Oineza urrats kualitatiboak garatzeko aukera berri bat dela pentsatzen dut, non, ikastetxe publiko-pribatuen errealitateak kontrajarriak ez baino osagarriak bezala ikusten eta lantzen hasteko garaia delako, betiere euskara berea egiten dutenen artean. Ahaztu gabe XX. mendearen berrogeita hamarkadaz geroztik, eskolaren ugaltzearekin batera, sortu eta jarraitzen duen auzia dela. Zorion bikainak Lodosa eta Sartagudako Nafarroa Oinez 2001 leian sinestu eta ateetaraino ekarri duzuenoi.

zutabea

Menane Oxandabaratx



Kanpoan kaltegarri, etxean gerla gorri...

Urriaren 6an, iragan da ABren biltzar nagusia. Duela jadanik zenbait denbora abertzaleen arteko solasaldietako gai nagusia zen eta denek egun hori gogoan genuen.

Egun horretan bi mozio aurkeztuak eta ondotik bozkatuak ziren. Bat AB mugimendu politikoa segitzea, bestea Batasuna ezker nazional abertzale alderdi politikoan sartzea. Horra bi mozioak laburki eta gordinki pausatuak.

Izan dira hilabeteak eztabaida, metodologia bat plantan ezarria izan dadin, tendentzia eta gogoeta talde guzien artean. Denak ados zirelarik horrekin, baina bi ikusmolde nagusi, estrategia desberdin Euskal Herriaren geroarentzat. Metodologia horren azken fasea bururatzen zen urriaren 6an, delako hain aipatu biltzarrean, «AB azkartu eta Lizarra-Garazi prozesua berretsi» mozioak du gehientasuna eskuratu. Nork irabazi du? Egun horretan inor ez da irabazdun atera.

Egun horretan iduritu zait, abertzale batzuek galdu dituztela lagunak, bai lagun militanteak, baina ere egiazko lagunak, beste batzuek familiako ahaideekin tirabidak izan dituztelarik... Ezagutu ditut beste gerla batzuk abertzaleen artean, zauriak utzi dituztenak; abertzale batzuk geroztik ez ditugunak inoiz ikusten. Ezagutu ditut frantses eta espainol estatuen arteko jukutria maltzur batzuegatik memento dorpeak, larriak, mingarriak. Baina, urriaren 6ko biltzarrek utzi diit sendimendu penagarri, kezkarri bat. Zeren ororen buru denek Euskal Herria dugu nahi bateratu. Zeren ororen buru denek euskaraz dugu nahi mintzatu. Zeren ororen buru denek Euskal Herri bat dugu nahi oparitu, ondoko belaunaldier. Baina betikoa, hamar urrats aitzinerat eta beste hiru gibelerat. Dantza bat balitz ez dakit nola deitu behar litzatekeen. Politikoki horrek kalteak baizik ez dizkigu ekartzen. Baina gure aurkakoer nahi nuke erran, beti jakin dugula berriz animatzen, gure aldarrikapenen aitzinarazteko. Itxaropen batekin nahi nuke zutabe hau bururatu, ondoko egunetan edo hila-beteetan berriz bat eginen dugula Euskal Herriarentzat, bada segur asko egiteko....

seiko urrea

Iñigo Aranbarri



Oroimena

Orain berrogei urte, 1961eko urriaren 17an, zoritxarreko La Plata bilakatu zen maiteminduen Sena. Ibaiak hogeitaka gorpu itzuli zituen. Videlarekin eta Pinochetekin geroago bezala, Versailleko Ateko Erakus-keta Parkea, Coubertin estadioa eta Kirol Jauregia atxiloteta gune bilakatu ziren. Papon prefetak milaka aljeriarren manifestazio baketsuaren kontra zuzendutako ekintza hartan, zenbaketen arabera, hogeita hamabi eta hirurehun aljeriar bitartean hil zituen frantziar polizia.

Hildako horien oroimenarekin zer egin izan da ezbaia. Azkenean, adjetibazioz erantzitako plaka ezartzea erabaki du Parisko Kontseiluak San Michel ondoko zu-

bian. Jean Tiberi, garai hartako alkatea garbi mintzatu da: «*zergatik nahasi gauzak 'batasun nazionala' lortu dugunean?*». Biktimen ondorengo frantsesek, oroimena aldarrikatu dute.

Oroimenaren eta amnesiarene arteko borroka, ordea, ez du aberrik. Berdin jutzen du hemen edo han. Bi mundu gerretan hildakoen izenak hemen, erreketenak han, azken urteotako biktimenak hemen eta han... Eta egia bada ere soilik hildakoz beterik dagoen oroimena gaixorik dagoela, ez da gezurra botereak soilik onartzen duen memoria ere, are eriago dela.

Frantziako kasuan, munduko argentina guztietan bezalaxe, oso zaila izan da boterearen esku hildakoen arrastorik aurki-

tzea. Desagertu, artxibo ofizialetarik ere desagertu zirelako. Lan eskerga egin behar izan da liburuak eta filmak burutzeko, pertsonak berregiteko. Zertarako, eta historia zati bat, ez orainean, dagokion hutsunean sartzeko baizik.

Oroimena, etxe delikatua da. Bakoi-tzak geurea egin dugulako, segurik. Baina etxea bada ere, ez da librea. «*Batasun nazionalaren*» eta beldurraren mende dago, ezjakintasunarekin egin behar du borroka, oinordetzan hartzen diren hildakoe-kin bizi. Gainera, beti egongo da norbait, «*bakearen izenean*» botereak onartu ez duen oroimena pribatuan gordetzeko esango dizuna. Horra gure zibilizazioaren ezaugarrietako bat. Historiaren B alde aipatzeak, lizunkeria handia izaten ohiuak gaude.

Gaur bertan, Galizan, diktadura militar batean ministro izanak bilduko du boto-rik eta gehien. Zergatik ez, legeriak onartzen du. Eta oroimena Galizian, Parisen bezalaxe, ez da librea.

kornerra

Mikel Elorza

Utikan

Beste abildade batzuk ezagutzen genizkion Miguel Sanzen garbiketa-taldea-ri, baina ez geografoena. *Euskal* bakte-
rioaren arrastoak afixa, errotulu eta eraikine-tatik ezabatzeaz gain, nafarren aldeko diskri-minazio positibo berezi horretan, orain geo-grafi lanean hasi dira. Gaur Lodosa eta Sartagudara bilduko den jendea akaso ez zen konturatuko baina Euskal Herriko mapatik ez ezik, atlas linguistikotik ere aparte gera daitez-ke. Hizkuntza ez aldatuagatik ere, oharkabe-an, Nafarroan oinez, atlasetik atera egingo di-ra eta batek daki nora amildu. Beste orrialde batera, beste herrialde batera, beste kontinen-te batera, koittaduak. Koittaduak ere Gasteiz-ko bikotegabeak, babes ofizialeko etxebizitza nahi dutenak behintzat. Premia handiagoa omen bikoteena, eta tori euren aldeko diskri-minazio positiboa. Zoritxarrekoa diskrimi-nazio positiboa deskubritu zutenekoa!